

## KOSTE EGITURA

Hasiera batean gure app-a martxan jartzeko, hainbat gauza eskuratu beharko ditugu, beraz, koste gehiago izango dugun momentua hau izango da.

Lehenengo eta behin errekurtsio teknologikoak beharko ditugu gure aplikazioa sortzeko, hala nola, ordenagailuak eta mugikorrak. Horrekin batera informatikoak ordaindu beharko ditugu gure app-a sortzen laguntzeko, eta app-a sortuta dagoenean, domeinuaren jabeak izateko, domeinuaren izena ordaindu beharko dugu.

Hortaz aparte pentsatu dugu ideia hona izango zela lokal bat alokatzea bertan lan egiteko eta pazienteak psikologoekin batzeko, leku fisiko bat izateko. Honela pazienteak ingurune seguru bat izango du bere psikologoarekin fisikoki hitz egiteko.

Baita ere marketinean espezialitatuta dauden jendea ordainduko dugu, aplikazioa modu ulergarrian diseinatzeko eta iragarkiak diseinatzeko jendeari transmititu nahi dugun informazioa ondo heltzeko.

Hori gutxi balitz, aplikazioa iragarkitzeko panfletoak ordaindu behar dira, eta horrekin batera, beste aplikazioetan jartzeko iragarkia ordaindu beharko da.

Aplikazioa egiteko, diseinatzeko eta erabiltzeko wifi behar da, beraz, wifia ere ordaindu beharko da.

Behin hau dena edukita, aplikazioa martxan jarri ahalko da, beraz, psikologoak ordaindu beharko ditugu. Koste hau hileroko izango da, hau da, hilero psikologoen soldata ordaindu beharko dugu, wifia, informatikoa eta lokalaren alokagaia ordaintzearekin batera.

### Hilean:

KOSTUAK	€	KANTITATEA	TOTALA
---------	---	------------	--------

Psikologoak	1.500€	3	4.500€
Informatikoak	2.000€	2	4.000€
Lokala	900€	1	900€
Lokalaren wifia	50€	1	50€
Guztira	4450€	7	9.450€